

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure ezaugarri nagusienak izango ziren:

- Kalitateko arropak eta zapatak, bi urtetik gora (emakume eta gizon). Arropa asko etiketa berriekin gordetzen dira, eta inoiz ez dira estreinatzen. Beraz, gure biltegietan jasoko ditugun arropa asko berri egongo dira.
- Zerbitzu oso bat eskaintzen dugu.(arropak jaso, baloratu, argazkiak igo ,saldu eta ordaindu gure bezeroari).
- Bezeroaren arropak web gunetik merkatuko bezero batek erosten dituenean saldu duenari bere arropa saldu dela komunikatuko zaio. E-mail bidez bezeroak itzulketarik egiten ez badu hurrengo lau astetan bere kontu korrontean jasoko duen zenbatekoa adieraziko zaio.
- 24 orduko zerbitzua eta bezeroak adieraziko duen helbidean jasoko dira arropak egun batetik bestera.
- Bezeroak web gunean kutxaren tamaina eta pisua adieraziko du eta guk mezularia eskatu duen kutxarekin bidaliko diogu. Eskaerak biltegietara eramateko erabiliko diren kutxen materiala erabat biodegradagarria izango da.
- Lea Artibaiko hornitzaileekin lan egiten dugu, eta Lantegi Batuetako langileei lana ematen diogu.
- Gure prozesu osoa “jasangarria” da, eta arropen berrerabilerarekin CO2KO emisioak eta uraren kontsumoa murrizten da. Arropen %60a poliesterrarekin egin dago. Poliesterrak duen arazorik larriena errez ez dela degradatzen da. Gure proiektuarekin arropak ez dira produzitzen, beraz poliesterraren kontsumoa murriztuko dugu.
- Bezeroak prozesu horretan ordaindu beharko duen gastu bakarra mezulariaren zerbitzua izango da.
- Erabili ezin diren edo ongi ez dauden arropak ONGtara emango ditugu eta aukera emango diogu bezeroari zein ONGa aukeratzeko.

- Jostun bat ere izango dugu gure negozioan, konpondu daitezkeen arropak josteko eta berriro arropa hori merkaturatzeko.

